



Cubainformación.- El sistema educativo de Cuba llegará a las Jornadas que organiza el sindicato estudiantil vasco Ikasle Abertzaleak en la provincia de Bizkaia, en torno a modelos educativos liberadores. Será el martes 11 de octubre a las 13:00 horas en la Universidad del País Vasco, en Leioa, y el invitado será Javier Sánchez, activista aragonés, historiador y autor de la tesis doctoral titulada `Los manuales escolares de Historia en España en las últimas décadas y su contrapunto cubano´, que nos habla de los mitos que refleja la enseñanza de la Historia en una sociedad capitalista como la española, entre ellos el de la democracia burguesa, en comparación con la enseñanza de Historia verdaderamente universal y anticolonial de Cuba.

Sobre este autor, en Cubainformación TV:

[`En Cuba se enseña una Historia universal para la liberación de los pueblos. En España, una versión eurocéntrica, neocolonial y clasista´ \(+ texto Tesis doctoral\)](#)

[Madrid, 24 de junio de 2015: presentan libro `Los manuales escolares de Historia en España y Cuba: un análisis comparativo´](#)

Askatzailea izango den Hezkuntza Eredu Propio baten alde... ikasleok Eraikuntza Lanetan Gaude!

[Ikasle Abertzaleak](#) .- Ikasleok ere Eraikuntza Lanetan Gaude. Fase berri baten hasiera ezagutzen ari gara Gazte Mugimendua

ren baitan, Euskal Herri aske baten aldeko borrokan gure aldarriak materializatuko dituen honi esker. Bai topaketen baita dinamikaren oinarrian dagoen filosofi argia da: gazteok, gure gaitasunetatik eta eskura dauzkagun bitarteko materialetatik abiatuta, Gazte Mugimenduaren antolakuntzarako zein borrokarako tresnak sortzea dugu xede. Soilik ongi antolatutako herriak lortuko baititu helburu handiak. Hala, herriz herri zein sektorez sektore herri aske baten sustraiak landatzera gatoz!

Bada denbora Ikasle Mugimendutik aldarri soilak gainditu eta berauek eraikitzen hasi ginenetik. Hots, Hezkuntza Eredu Propioaren bidean Aurrera pausuak ematen hasi ginenetik; horren adierazle ditugarik Herri Eskolak, Eztabaida Taldeak, egindako jardunaldiak, Herri Unibertsitateak... Abagune honetan ikasleok prest egon behar dugu, orain arte egindako lan guztia ezbaiean jarriz, ongi egindakoaz zein izandako akatsetatik ikasiz, aurrera egin behar dugulako. Asko dira egiteke ditugunak, baina, gure herriak egun dauzkan oinarrizko beharrei erantzuteko asmoz gatoz ikasleak.

Bizi eredu askeetan oinarrituko den hezkuntza sistema bat eraiki nahi badugu, ikasleok argi dugu herritar libreak hezitzea ahalbidetuko digun hezkuntza askatzaile horren oinarriak zeintzuk diren argitu behar dugula. Hauxe da beraz jardunaldi hauen helburua, hezkuntza askatzailebaten eraikuntzarako oinarrien inguruan hausnartzea. Hezkuntzaren funtzio nagusia jakintzaren transmisioa izanik, garrantzia berezia emango diogu ezagutzaren inguruko hausnarketari: hauxe gaita ikasleok dugun tresnarik indartsuenetakoa. Eztabaidak anitzak izango dira, herri oso bat eraikitzeke izanda mila baitira eginbeharrak. Handia da ikasleok dugun erroka baina gogoz eusten diogu hezkuntza eraikitzeari.

Askatzailea izango den Hezkuntza Eredu Propio baten alde... ikasleok Eraikuntza Lanetan Gaude!

